

# ANNE FRANKEN

E G U N K A R I A



oroimenean  
barrena

# ANNE FRANKEN EGUNKARIA

Oroimenean barrena, 8

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Jatorrizko izenburua eta editorea:

*Anne Frank: Het Achterhuis*

*Dagboekbrieven 12 juni 1942 - 1 augustus 1944*

*Uitgeverij Bert Bakker, Amsterdam*

Itzulpena:

Josu Zabaleta

Azaleko argazkia:

© Anne Frank Fonds, Basel

Maketazioa:

Erein

© 1982, 1991, 2001 Anne Frank Fonds, Basel

© Otto H. Frank eta Mirjam Pressler

© Argitalpen honena:

EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-816-9

L. G.: SS-21/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.com](mailto:erein@erein.com)

[www.erein.com](http://www.erein.com)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Anne Frank

## ANNE FRANKEN EGUNKARIA

Itzultzailea: Josu Zabaleta

erein

## Sarrera

Seoane. Joan egin behar da hara! Quirogatik O Cebreirora bi-dean. Otsoak ere galdu egiten dira Courel mendietan! Han jaioa zen Uxio Novoneyra. *Bazterrak / Os Eidos*. Horrexegatik joan nintzen; saihesbide literario bat.

Kanpinean telefonoak estaldurarik ez zuen, eta kanpineko zerbitzuetara joan ginen deitzera. Oso jende adeitsua. Ardura-duna eta bi neskato: zortzi-bederatzi urte batek, eta hamaikaren bat-edo besteak. Telefonoz hitz egin genuen. Neskato gazteena adi-adi zegoen. “Zer hizkuntzatan hitz egiten zenuten?”; kanpina hizkuntza asko entzuteko leku egokia izan daiteke, egiaz. Horrela hasi ginen hizketan. Bera ingeleseko ariketak egiten ari zen, eta erredakziotxo bat egin behar zuen gero. Hizkuntzak ikastea oso gauza polita dela, gauzak idaztea ere bai. Eta orduantxe lotu nituen, ez dakit oso une egokian, *Os Eidos* eta *Anne Franken egunkaria*, ordurako itzultzeko asmoz aztertzen hasia nintzena eta hantxe neukana:

“Begira, hementxe, Seoanen, bada idazle bat, oso olerki politak idatzi dituen, *Os Eidos* du izena haren liburu batek, eta herriko sarreran ikusi dut badela jatetxe bat izen hori bera duena—kanpineko arduradunak tartean esan zuenagatik, ezagutzen zituena, jatetxea eta Novoneyra—. Zuk ere, gauzak idazten badituzu, gauza politak idatziko dituzu; egunen batean mutilen bat edo lagunen bat izango duzu, eta gauza politak esan nahiko dizkiozu, baina gauza politak ez dira ateratzen bat-batean, entrenatuta egon behar da. Begira, orain dela berrogeita hamarren bat urte, zure amonaren garaian, bazen neskato bat zu bezalakoa, handitxoagoa, eta gerra zen bitartean ezkutatuta egon behar izan zuen. Han bere gauzak idatzi zituen koaderno batean: triste zegoenean gauza tristeak, alai zegoenean alaiak, gurasoekin haserre zegoenean haserreak, berekin zegoen mutil batekin maitemindu zen, eta maitasun-gauzak, negarrak, pozak. Gauza horiek denak, egiazkoak direnean, denoi gustatzen zaizkigu, eta horregatik

gero liburu batean argitaratu ziren gauza haiek, eta milioika jende irakurri du harrezkero liburu hura. Ni euskaraz jartzen ari naiz orain, euskaldunek irakurri ahal izan dezaten”. Eta Anne Franken historiaz eta beste gauza askori buruz hitz egin genuen —bere ariketa koadernoan idatzita jaso zuen Egunkariaren izenburua—, kanpineko arduraduna, bitartean zerbait egitera alde egina zena, etorri arte.

Hura itzultzean benetan alaba bizkorra zuela esan nion, zorionak emanez. “Ez, ez da nire alaba, zaharrena bai, baina txikiena ez. Hori iloba dut, nire senarraren anaiaren alaba. Badu nahiko lan gaixoak. Gurasoak berezita ditu. Bera amarekin bizi da Bartzelonan, eta oportetarako etortzen da hona, aitarengana. Aitona-amonarekin egoten da, edo nirekin, aita guardia zibila baitu, eta libre duenean baizik ez du ikusten, eta beste neska batekin hasi da gainera, eta honentzat asti askorik ez du hartzen. Honek, berriz, aitona-amonei ez die ulertzen. Badakizu, hizkuntza, eta haien pentsamoldea ere... Bartzelonan ere hango aitona-amorarekin bizi da, ama ere beste batekin bizi da-eta, eta esperoan dago gainera; haiekin hobeto moldatzen dela uste dut; nik han dudan alaba zaharrenarekin moldatzen da ongien, eta gero nirekin. Baina badu lana, gaixoak, ez du bizimodu erraza. Badakizu zer esan didan gaur bertan ume koitadu honek? Izeba, nik ez dakit zertarako nagoen hemen, ez dakit zergatik jaio nintzen; nik uste dut hilda hobeto nengokeela. Gogorra da hori entzutea, ez zaizu iruditzen?” Horrelaxe bota zidan, bat-batean; karga astuna zeraman barru-barruan, bestela ez zidakeen esango.

Oraindik ez dakit ongi egin nuen neskatxo hari Anne Frank aipatzea.

## Egunkaria

Anne Frank Fankfurteko familia judu bateko alaba gazteena zen. 1933an, familia, Hitlerren erregimenak juduen kontra antolatutako esespenetatik ihesi, Holandara aldatu zen babes bila. Alemaniarrek Holanda okupatu zutelarik, ordea, hara

ere zabaldu zen juduen esespena, eta familiak gerra bukatu arte ezkutatzea erabaki zuen. Aitak zuen enpresak, Amsterdameko ubide inguruetako etxe askok bezala, ubideetara ematen zuen etxeaz gainera –han zeuden bulegoak eta abar–, bazuen atze aldera ematen zuen beste etxe bat; Frank familiak, esepenari ihes egiteko, hantxe ezkutatzea erabaki zuen. Zortzi pertsona izan ziren, adineko bost pertsona eta hiru gazte –Anne, gazteena– enpresako langileen laguntzarekin, etxe hartan bi urtez –1942tik 1944ra bitartean– ezkutatuta egon zirenak.

Anne Franken egunkarian bitarte horretako bizipenak jasotzen dira: neska gaztetxo bat, nerabegarora iristen, bere gizarte ingurutik bortizki deserrotu eta inguru estu, urduritasunez eta beldurrez larritu batean sartua. Barruan giro itogarria, kanpoan esespena eta heriotza.

Egoera horretan, pertsonaren nortasuna eratzen den bizialdiko urterik garrantzitsuenetako bi: nerabezaroaren hasierakoak. Idaztea, egoera horretan, aldi horretako estuasun, krisialdi, poz eta atsekabeen adierazpena ez ezik, estuasun, krisialdi, poz eta atsekabe horien gertalekua ere bilakatzen da Annerentzat, eta zenbaitetan –susmoa ematen digu, zergatik ez esan?–, eragile ere bai. Idaztea, poliki-poliki, denbora iragan ahala, egoeraren irtenbide eta nortasunaren heldutasunerako bide bihurtzen da –*idazten dudanean dena pasatzen zait, pena guztiak joaten zaizkit, berriro etortzen zait ausardia*–: idazketaren bidez doa, testuan ikusten den bezala, Anne heldutasunera hurbilduz.

Poliki-poliki geroz eta sakonagoa bilakatzen da bere buruaren eta inguruaren azterketa. Hasierako orrietako gertaeren aipamen ia soiletatik, azkenerako gogoeta sakonagoetara, bizitzako galderarik funtsezkoenetara iristen da geldiro-geldiro. Etengabe aztertzen ditu bere nortasunaren izaera baldintzatzen duten harremanak eta gertaerak: familiako harremanak, hurbileneko pertsonetikiko harremanak: elkarrekin bizitzera beharturik daudenekikoak eta babesleekikoak; lehenengo maitasun-sentipenak, gerra. Eta denbora joan ahala, bere burua

munduan kokatzeko leku baten bila ahaleginduko da, etorki-zunerako proiektuak eginez: idazle izan nahi du, judu herriko kide, eta holandar.

Alferrik espero izango dira Anneren testuan gogoeta sosegatuak, alferrik eskatuko zaio azaltzen dituen gaiekiko gogotatzeko distantziarik. Bizitzak ez zion eman distantzia hori izaten erakusten duen denborarik; gertaeretatik, sentipenetatik urruntzeko astirik gabe joan zen mundutik. Anneren testuan ez da “beroarena kentzeko” astirik izan; gertaeren pisupean, sentimenduaren beroan idatzita dago hizki bakoitza; orrian eroritako negar-malkoaren orbanak baizik ez du lautotzen hitza, han edo hemen.

Egia gordina, subjektiboa baina toles eta estalki gabea –zinezkotasun-botoa egin izan balu bezala– islatzen da orrialde guztietan. Subjektibotasun hori ezabatzeko, ironiaz baliatzen ahalegintzen da Anne Frank. Ironiak ematen duen urruntasun pixka bat, han-hemenka.

Zenbaitetan gogorregia eta guzti ematen du Anneren testuak, amarekin dituen harremanak –eta aitarekin dituenak, zenbaitetan– deskribatzen dituenean batez ere. Tirandura horixe da, ordea, nerabezaroaren ezaugarri nagusietako bat, ezkutatuak bizi zuten egoera itogarriak are larriago egina.

Eta testu guztiaren atzean, bizitza tokatu zitzaion agertokiko atzeko oihal bezala, egoera politikoa, esespena, gerra eta arrazakeria, bizitza eta heriotza. Gai hauez diharduenean ditu, agian, Anne Frankek orrialderik distiratsuenak. Gogoeta baino gehiago garrasiak dira, egunkariaren orrietan banatuak. Gerraren izugarrikeria, basatikeria: *Gizakiarengan bada, izan ere, halako suntsitzeko gogo bat, besteak hiltzeko eta piztia bat izateko gogo bat; gizadi osoa, salbuespenik gabe, aldatzen ez den bitartean, triskantzak egiten jarraituko du gerrak*. Izugarrikeria horren aurrean kemena eta adorea izan beharra, eta zenbaitetan kemen eta adore hori ezin izana: *Behin eta berriro ari naiz neure buruari galdezka hemen ezkutatu baino denak hilda egotea ez ote genuen hobe, amesgaizto hau pairatu beharrik ez izateko* –honetan lotzen



da, agian, baina beste maila batean, Anneren testua Seoanen ezagutu nuen neskato bizkor haren etsipen oihuarekin—.

Hala ere, bizi-nahia gainditzen da, barreneko eutsi ezinezko indar bat bezala, etsimen guztiaren gainetik, 1944ko apirilaren 5eko oharrean dioen bezala: *Bizirik jarraitu nahi dut, hil eta gero ere!*

### Testua eta argitalpena

Anne Frankek 1942ko ekainaren 12tik 1944ko abuztuaren 1era bitartean idatzi zuen bere egunkaria. Gutun moduan idatzitako egunkari bat da. Hasieran beretzat besterik ez ziren, baina 1944ko udaberrian erbesteko holandar gobernuko Hezkuntza ministroaren hitzaldi bat entzun zuen irratiz.

Hark esaten zuenez, gerra amaitzean, holandar herriak alemaniarren okupazio aldiaren jasandako sufrimenduen lekukotasuna emango zuten idatzi guztiak bildu eta argitaratzeko asmoa zegoen. Egunkariak aipatu zituen, besteren artean. Mezu hark eraginik, gerra bukatutakoan liburu bat argitaratzeko asmoa hartu zuen Anne Frankek; horretarako oinarri ona izango zen egunkaria.

Ordu arte hartutako oharrak berriro lantzen eta garbian jartzen hasi zen, paragrafo batzuk zuzenduz, beharrezko iruditzen ez zitzaizkionak kenduz, eta gogoratzen zituen beste datu batzuk gehituz. Bien bitartean bere jatorrizko egunkaria idazten jarraitu zuen. Azkeneko oharrak 1944ko abuztuaren 1ekoak dira. Abuztuaren 4an alemaniarrek etxean sartu eta Anne Frank eta familia osoa eraman zuten.

Atxiloketaren egun berean, Miep Gies eta Bep Voskuijl, Frank familiaren babesleek, Anneren testuak bildu eta gorde zituzten. Miep Giesek bere idazmahaietan gorde, eta Otto Frank, Anneren aitari eman zizkion, irakurri gabe, Anne ez zela itzuliko ziur jakin zenean.

Zalantza askoren ondoren, Otto Frankek alabaren asmoa betetzea erabaki zuen, eta haren oharretan oinarrituta liburu bat osatu zuen. Jatorrizko bertsioa, eta Annek berak laburtu

eta zuzendua, oinarriztat harturik, beste bertsio bat paratu zuen, laburtua: hain zuzen ere, egunkari hori liburu sail batean argitaratzekoa zenez, argitaletxeak liburu sail haren neurrietara laburrarazi zuen liburua.

1947an liburua argitaratu zenean, literaturan, gazteentzako literaturan batez ere, ez zegoen ohiturarik sexu-gaiak hain argi azaltzeko. Horregatik kendu ziren zati batzuk. Beste batzuk Otto Frankek bere emaztearen eta Atzeko Etxean gordeta zeuden gainerakoen oroitzapena errespetatu nahi zuelako kendu ziren. Annek, izan ere, bere egunkaria idatzi zuenean hamahiru-hamabost urte zituen, eta argi eta garbi adierazi zituen hartan bere ezinikusiak, haserreak, amorraldiak, eta bere zaletasun eta begikotasunak.

Otto Frank 1980an hil zen. Bere alabaren jatorrizko idatziak Amsterdameko Holandako Gerrako Dokumentazio Institutuari (RIOD) utzi zizkion.

Egunkari honen egiazkotasunari buruz izan diren zalantzak kontuan hartuta, RIOD erakundeak azterketa sakon bat egin zuen haiei buruz. Idatziok egiazkoak zirela frogatu zenean baizik ez zuen erabaki RIODEk testu horiek, ikerketaren emaitzekin batera, argitaratzea; azterketa horretan sartzen ziren, besteren artean, atxiloketari eta deportazioari buruzko azterketak, idazteko erabilitako materialari buruzkoak eta Anne Franken kaligrafiari buruzkoak.

Basileako Anne Frank Funtsak –Otto Franken ondasunen oinordeko bakarra, eta horrenbestez haren alabaren autore-eskubideen jabeak– egunkariaren bertsio berri bat argitaratzea erabaki du, orain eskura dauden testuetan oinarrituta. Otto Frankek egindako argitalpen-lana, liburu hau mundu osoan zabaldu eta eduki politikoa ezagutarazteko balio izan duena, ez da baliorik gabe uzten, horrenbestez. Argitalpen honen ardua Mirjam Pressler alemaniar idazle eta itzultzaileak hartu zuen; Otto Franken argitalpenean oinarriturik, Anneren beraren lehenengo eta bigarren bertsioetatik hartutako zatiak gehituz burutu zuen. Mirjam Presslerrek prestatu eta Basileako

Anne Frank Funtsak onartutako testu hau orain arte ezagutzen zen testua baino laurden bat luzeagoa da.

1998an orain arte ezagutzen ez ziren egunkariaren bost orrialde azaldu ziren. Zati horrek eragiten dituen aldaketak ere jasota geratu dira argitalpen honetan.




Annek bere egunkariaren bigarren bertsioa, argitalpenerakoa, idatzi zuenean, liburu moduan argitaratzen bazen pertsonaiei jarri nahi zizkien ezizenen zerrenda bat prestatu zuen. Bere izenak Anne Aulis izan behar zuen lehendabizi, eta gero Anne Robin deitzea erabaki zuen. Otto Frankek, bere argitalpenean, alabak aukeratutako izenen ordeztan, bere familiakoentzat egiazko deitura erabili zuen; gainerako pertsonaien izenak, bai, Anneren zerrendaren arabera jarri zituen. Familiaren babesleek, gaur egun ongi ezagunak baitira, liburuan beren egiazko izenez deitzea merezi dutela iritzi da. Gainerako guztien izenak, RIODen bertsioan erabilitakoen arabera jarri dira; ezezagun jarraitu nahiago izan dutenentzat, RIODEk zoriaren arabera aukeratu zituen hasierako letra batzuk.

Frank familiarekin batera ezkutatuta egon zirenen egiazko izenak hauek dira:

Van Pels familia, Osnabrück-ekoa, Alemania: Auguste, 1890eko irailaren 29an jaioa; Hermann, 1889ko martxoaren 31an jaioa eta Peter, 1929ko azaroaren 9an jaioa; Annek Petronella, Hans eta Alfred Van Daan izenak eman zizkien; liburuan Petronella, Hermann eta Peter Van Daan bezala agertzen dira.

Fritz Pfeffer, Giessen-en (Alemania) 1889an jaioa; Annek Albert Dussel izena eman zion, eta horrelaxe azaltzen da liburuan.

*Itzultzailea*



1942KO EKAINAK 2

Gauza guztiak esan ahal izango dizkizut, nik uste, orain arte inori ez bezala, eta laguntza handia emango didazula espero dut.

1942KO IRAILAK 28 (GEHITUA)

*Gaur arte laguntza handia eman didazu, eta baita Kittyk ere, aldiro-aldiro idazten baitiot hari; egunkaria idazteko modu hau askoz ere gehiago gustatzen zait, eta zain egoten naiz zuregan idazteko unea noiz iritsiko.*

*Bai pozik nagoela ekarri zaitudalako!*

IGANDEA, 1942KO EKAINAK 14

Hartu zintudan unetik hastea izango dut onena, mahai gainean urtebetetzetako oparien artean ikusi zintudan unetik, alegia (erosi zintuzten unean ere han bainengoen, baina horrek ez du balio).

Ekainaren 12an, ostiralean, goizeko seietarako esnatuta nengo dagoeneko, eta ulertzekoa da, urtebetetzea nuen-eta. Baina seietan ez zidaten jaikitzen uzten oraindik, eta zazpiak laurden gutxiak arte gorde behar izan nuen nire jakin-mina. Orduan ezin izan nuen gehiago; jangelara joan nintzen; Moortjek (katuak) buru-kolpetxo batzuk joz ongietorria eman zidan.

Zazpiak pasatxotan aitari eta amari egunon esatera joan eta egongelara, opariak zabaltzera; zu ikusi zintudan lehenengoa, inoiz hartu dudan oparirik politena, beharbada. Eta arrosa sorta bat, bi peonia sorta eta landaretxo bat. Aitak eta amak alkandora urdin bat, jolas bat, mahats-zukuzko botila bat, ardo-gustu pixka bat duena, nire iritzirako (mahatsez egiten

da ardoa), eta puzzle bat, krema-pote bat, 2,50 florineko billete bat eta bale bat bi liburu eroteko. Beste liburu bat ere bai, *Kamera iluna*, baina Margotek badu, eta aldatu egin dut; etxean egindako gozopil-plater bat (nik egina, jakina, zeren gozopiltxoak egiteko horretan oso ongi moldatzen bainaiz une honetan), gozoki mordo bat, amak egindako marrubi-tarta bat, amonaren gutun bat, justu garaiz iritsia, baina nahi gabe izango zen hori.

Gero Hanneli etorri zitzaidan bila eta eskolara joan nintzen. Jolas garaian gurinezko gozopilak eskaini nizkien irakasleei eta ikaskideei; eta gero lanera berriro. Gero bostetan itzuli nintzen etxera, soinketa-ikastarora joan nintzen-eta (uzten ez badidate ere, zeren hankak eta besoak erraz ateratzen baitzaizkit lekutik); urtebetetzea nuenez, denek volleyra jolas egitea aukeratu nuen. Etxera iritsi nintzenerako, han zegoen Sanne Lederman, eta Ilse Wagner, Hanneli Goslar eta Jacqueline Van Maarsen nirekin joan ziren, nire eskolakoak dira-eta. Lehenago, Hanneli eta Sanne nire lagunik onenak ziren, eta elkarrekin ikusten gintzutenean, beti esaten zuen jendeak, *horra Anne, Hanne eta Sanne*. Jacqueline Van Maarsen lizeo juduan ezagutu nuen, eta orain bera dut lagunik minena. Ilse Hanneliren lagunik onena da, eta Sanne beste eskola batean dabil, eta han baditu bere lagunak.

Klubak liburu zoragarri bat oparitu dit, Nederlandar sagak eta elezaharrak, baina nahastu egin dira eta bigarren liburukia oparitu didate; horregatik lehenengo liburukia aldatu dut, beste bi libururen truke. Izeba Helenek beste puzzle bat ekarri dit, izeba Stephanie brotze polit-polit bat, eta izeba Lenyk liburu jostagarri bat, *Dausiren oporrak mendian*. Gaur goizean, *Rin-tin-tin* bezalako txakur bat edukitzea zein gauza polita izango litzatekeen aritu naiz pentsatzen, bainatzen ari nintzen bitartean. Nik ere *Rin-tin-tin* jarriko nioke izena, eta eskolan atezainarenean utziko nuke beti, edo bizikleten gordelekuan, eguraldi ona izanez gero.

Igande arratsaldean nire urtebetetzea ospatu genuen. Rintin-tin asko gustatu zitzaion nire lagunei. Bi brotxe, liburuetarako orri-markatzaile bat eta bi liburu oparitu zizkidaten. Orain ikasgaiez eta eskolaz zertxobait esan nahi nuke, ikaskideetatik hasita.

Betty Bioemendaalek pobre itxura du, eta izan ere badela uste dut. Jan Klasenstraat kalean bizi da, hiriaren mendebaldean, gutako inork ezagutzen ez duen kale batean. Eskolan oso ona da, baina oso saiatua delako bakarrik, zeren geroz eta gehiago ari baitzaio kostatzen. Nahiko lasaia dirudi.

Jacqueline Van Maarsen nire lagunik onenentzat daukate, baina nik inoiz ez dut izan egiazko lagunik. Hasieran Jacque izango zela uste nuen, baina desilusio handia hartu dut harekin.

DQ<sup>1</sup> oso neska urduria da, beti ahazten ditu gauzak, eta zigorra zigorraren gainean irabazten du. Oso neska jatorra da, GZ-rekin batez ere. ES berritsu hutsa da, nekatu egiten baitzaitu azkenerako. Zerbait galdetzen dizunean, ilea edo jantzietako botoiak ukitzen hasten zaizu beti. Ezin omen nau ikusi ere, baina ez zait askorik axola, niri ere bera ez zait oso atsegina iruditzen eta.

Henny Mets neska alaia eta dibertigarria da, baina oso gora hitz egiten du, eta kalean jolas egiten duenean umekeriak egiten ditu. Lastima, badu lagun bat, Beppy izenekoa, bere gain oso eragin txarra duena, zeren egiaz gauza zikinak eta desatseginak esaten baititu.

JR-ri buruz kapituluak eta kapituluak bete litezke. Mari pertxenta, marmarti, desatsegin hutsa da; nagusikeriatan aritzen da; azpikeriazalea, gezurri amorratua. Jacqueline txoraturik dauka, eta lastima da. Edozer gauzagarik negarrez ari da, milika bat, itxura baizik ez dena. Arrazoa berea izan nahi du beti. Aberats okitua da, armairu bete jantzi polit ditu, baina nagusi itxura

<sup>1</sup> Egiazko pertsona batzuek hala eskaturik, haien izenen ordez inisial batzuk jarri dira, aliritzira (RIODen oharra).

ematen diote. Oso ederra dela uste du, baina itsusia baino itsusiagoa da, izan, ergel hori. Ezin dugu elkar ikusi ere egin.

Ilse Wagner neska alai eta atsegina da, baina erretxina bat da, eta negarti samarra batzuetan. Ilsek ongi maite nau. Oso polita da, baina nagia.

Hanneli Goslar, edo Lies, hala deitzen baitiogu eskolan, neska bitxi samarra da; izuti samarra, normalean, eta etxean lotsagabea oso. Entzundako guztiak eramaten dizkio amari. Baina argi eta garbi esaten ditu pentsatzen dituenak, eta azkenaldi honetan batez ere, asko estimatzen dut.

Nannie Van Praag-Sigar neskato alaia da, bere adinerako aurreratu samarra. Atsegina iruditzen zait. Nota onak ateratzen ditu; zer esan handirik ez dago Nannie Van Praag-Sigar-ek.

Eefje de Jong oso jatorra da, nire iritzian. Hamabi urte bairik ez ditu, baina andretxo bat da dagoeneko. Haurtxo bat baintz bezala tratatzen nau. Oso laguntzailea da; horrexegatik estimatzen dut ongi.

GZ eskolako gure taldeko politena da. Aurpegi zoragarria du, baina ez da oso-oso bizkorra, eta ikasturtea errepikatu egin beharko duela iruditzen zait, baina hori ez diot esango, jakina.

(GEHITUA)

*Harrigarria badirudi ere, GZ-k ez du errepikatu behar urtea.*

Eta, eskolako hamabi nesketan azkena, neu naiz, GZ-ren mahaikidea.

Mutilei buruz zer esanik asko legoke, eta ez askorik, aldi berean.

Maurice Coster nire miresle ugarietako bat da, baina aspergarri samarra.

Sallie Springer-ek sekulako nazkagarrikeriak esaten ditu, eta dagoeneko neska batekin oheratua omen da, esaten duteenez. Niri, ordea, oso atsegina iruditzen zait, oso dibertigarria delako.

Emil Bonewit GZ-ren mireslea da, baina GZ-rekin zer eginik ez du. Aspergarri samarra da.



Rob Cohen ere nitaz maiteminduta egona da, baina orain ezin dut irentsi. Faltsua, gezurtia, negartia, barregarria, astuna eta harroputza da.

Max van der Velde Medemblik-eko nekazari batzuen semea da, baina mutil jatorra da, Margotek esango lukeen bezala.

Herman Koopman ere nazkagarri bat da, Jopie de Beer bezala, gonazale eta neskazale hutsa berau ere.

Leo Blom Jopie de Beer-en lagun mina da, eta haren nazkagarrikeria guztiez kutsatua.

Albert de Mesquita Montessori eskolatik etorri da, eta ikasurte oso bat aurreratu dute. Oso bizkorra da.

Leo Slager ere eskola beretik etorria da, baina ez ditu haren dohainak.

Ru Stoppelman Almeloko mutil potolo atsegin bat da. Ikasurtea hasi eta gero iritsi zen.

CN-k debekatuta dagoen guztia egiten du.

Jacques Kocernoot gure atzean egoten da eserita, Pam-en ondoan, eta barrez lehertzen gara (GZ eta biok).

Harry Schaap eskolako mutilik itxurazkoena da, eta nahiko atsegina.

Werner Joseph idem, baina oso itxia da, eta aspergarri samarra dirudi.

Sam Salomon inguruetakoa barrabas horietako bat da, mutiko zikina (nire mireslea hau ere!).

Appie Riem ortodoxo samarra da; alproja samarra hau ere.

Bukatu beharra dut. Hurrengoan ere gauza pila bat izango dut zugan idazteko, zuri kontatzeko. Berehala arte. Hau poza zu edukitzea.

LARUNBATA, 1942KO EKAINAK 20

Oso sentsazio bitxia da benetan, ni bezalako batentzat, egunkaria idaztea. Ez inoiz idatzi ez dudalako bakarrik; baizik eta iruditzen zaidalako geroago ez niri ez beste inori ez zaizkiola interesatuko hamahiru urteko eskolako neska baten koiatak. Baina, egia esateko, horrek ez dio axolarik, gogoia daukat idazteko, eta,

gehiago, gauza mordo bati buruz buruan ditudanez behingoz egia esateko. “Paperak pazientzia gehiago du jendeak baino”. Horixe etorri zitzaidan gogora, burua esku artean nuela, ezertarako gogorik gabe irten ala etxean geratu ezin erabakirik aspertzen ari nintzen eta, azken finean, hantxe gogoetan nengoen malenkonia arin bateko egun batean. Egia baita; paperak pazientzia du, eta nola ez dudan asmorik “egunkaria” izenburu dotorea duen azal gogorreko koaderno hau inoiz inori irakurrarazteko, L nagusia merezi duen neska edo mutil lagunena bat aurkitzen ez badut behintzat, ba, inori ez zaio gaizki irudituko.

Iritsi naiz, bada, egunkari bat idazteko ideia honen iturburuan dagoen egiaztapenera: ez dut lagunik.

Argiago gera dadin, azalpen bat eman behar dut, ez bailitza-teke ulertuko nola izan litekeen hamahiru urteko neska bat munduan bakar-bakarrik, ez baita egia, gainera: guraso zoragariak ditut eta hamasei urteko ahizpa bat ere bai; baditut hogeita hamarren bat lagun, onak eta ez hain onak, denak kontatuta. Badut miresle pila bat ere, elkarren begiradak noiz gurutzatuko zain, eta, besterik ezinean, eskola-garaian ispilu puska batez begiratzen saiatzen zaizkidanak. Baditut nire ahaideak, izebak, onak, eta nire etxea. Ez, lehen begiratuan ez dut ezeren eskasiarik, L handi bat merezi duen lagun batena ez bada. Nire kideak jolaserako kideak dira, horra guztia. Eguneroko gauzez hitz egin, edo elkarrekin egon, besterik ez dugu egiten; norbere barneko gauzez, inoiz ez. Eta hortxe dago gakoa. Barnekotasun-falta hori, baliteke nire errua izatea, baina azken finean, horrelaxe dira gauzak, eta ezin alda daitezke, tamalez. Horra zergatik egunkari hau.

Eta nire irudimenean nire lagun hain desiratuaren ideia hau oraindik gehiago indartzeko, ez ditut egunkari honetan gertaerak soil-soilik jaso nahi, edonork egin lezakeen bezala, baizik egunkari hau berau nire lagun egin nahi dut, eta *Kitty* izango du izena.

Nire historia! Tuntuna halakoa! Nola ulertu, bestela?

Kittyri kontatzen diodana, horrelaxe, inolako sarrerarik gabe, utziko banu, inork ezer ulertuko ez lukeenez, labur

bada ere nire bizitzako historia kontatu beharko dut lehen-dabizi, askorik gustatzen ez bazait ere.

Aita, nire bizitzan ezagutu dudan aitarik onena, hogeita hamasei urte zituen arte ez zen ezkondu; amak hogeita bost zituen orduan. Nire ahizpa Margot 1926an jaio zen Alemanian, Frankfurt-am-Mein-en. 1929ko ekainaren 12an iritsi nintzen ni. Lau urte nituen arte Frankfurten bizi izan nintzen. Judu “garbiak” garenez, 1933an aita Holandara etorri zen; Opekta izeneko marmeladagintzako holandar konpainia bateko zuzendari izendatu zuten. Ama, Edith Frank-Holländer, irailan etorri zen aitari lagun egitera. Margot eta biok Aachenera joan ginen, amona han bizi baitzen. Margot abenduan etorri zen Holandara, eta ni otsailean, eta mahai gainean jarri ninduten Margotenzako oparien artean.

Handik gutxira Montessori ikastetxeko haurtzaindegian sartu ninduten, eta hantxe egon nintzen sei urte bete arte. Gero Lehen Hezkuntzako lehen ikasturtea hasi nuen. Seigarrenean Kuperus andrea izan nuen irakasle, zuzendaria. Ikasturtea amaitu eta agur esatean, sekulako emozioa sentitu genuen, eta biak egon ginen negarrez, ni lizeo juduan onartu nindutelako; Margot ere hara joaten zen.

Gure bizitzan kezka asko genituen, uste izatekoa den bezala, Hitlerrek juduen kontra emandako legeek ez baitzieten barkatu Alemanian geratu ziren gure ahaideei. 1938ko progromen ondoren nire bi osabek, amaren anaiek, ihes egin zuten eta Ipar Ameriketara azaldu ziren salbu eta bizirik. Amona guregana etorri zen bizitzera; hirurogeita hamahiru urte zituen orduan.

1940ko maiatzetik aurrera garai onak bukatu ziren: lehen-dabizi gerra, gero menderakuntza, Alemaniaren inbasioa, eta hala hasi ziren juduon atsekabeak. Juduen kontrako neurriak bata bestearen ondoren iritsi ziren, eta askatasun asko eta asko kendu ziguten. Juduak Dabiden izarra erabiltzera beharturik daude; beren bizikletak agintarien esku utzi behar dituzte; ez dute zilegi tranbian ibiltzea, eta partikularren autotan ere ez; juduek arratsaldeko hiruretatik bostetara bitartean

baizik ezin dituzte erosketak egin; juduen ile-apaindegietara baizik ezin dira joan; arratseko zortzietatik goizeko seietara birtartean ezin dira kalean ibili; debekatua dute antzokietan, zinema-aretoetan, eta beste aisia-leku publikoetan sartzea; debekatua dute igerilekuetan, tenis, hockey edo bestelako kirol-zelaietan sartzea; debekatua dute arraunean egitea; debekatua dute jendaurrean edozein kirol mota egitea; debekatua dute arratseko zortzietatik aurrera beren etxeetako lorategietan edo beren lagunenetan eserita egotea; juduak ezin dira kristauen etxeetan sartu; ikastetxe juduetara joan behar dute, eta horrelako beste gauza asko eta asko. Horrela igarotzen ziren gure egunak: horrelakoa ezin genuela egin, halakoa ere ez. Hala esaten dit beti Jacquesek: “Oraintxe ez naiz ausartzen ezer egitera; beldur naiz ez ote dagoen debekatuta”.

1941eko udan amona oso gaixotu zen. Ebakuntza egin behar izan zitzaion, eta nire urtebetetzea ia ez genuen ospatu ere egin. 1940ko udan ere ez, Holandan gerra bukatu berria zelako. Amona 1942ko urtarrilean hil zen. Inork ez daki zenbat gogoratzen dudan eta zenbat maite dudan oraindik. 1942ko urtebetetze hau aurrekoen ordaina emateko ospatu genuen, eta amonaren kandela ere piztuta eduki genuen.

Gu laurok ongi gaude oraindik, eta honela iritsi gara 1942ko ekainaren 20ko egun honetara arte, egunkari hau handikiro estreinatzen dudan egun honetara arte.

LARUNBATA, 1942KO EKAINAK 20

*Kitty maitea:*

Hastera noa, besterik gabe. Une honetan dena lasai dago. Aita eta ama kanpora atera dira eta Margot bere adiskide Treesen etxera joana da, mutil batzuekin ping-pongean jolas egitera. Nik neuk eskolan egiten dut ping-pongean azkenaldi honetan. Pentsa zenbateraino: klub bat antolatu dugu bost neskaen artean. *Hartz Txikia ken bi* du izena klubak. Hola-hala asmatutako izena da, eta hutsegite batean oinarritua, gainera. Izen berezi bat nahi genuen eta, bost kide garenez, izarrak bururatu

zitzaizkigun, Hartz Txikia. Bost izarrez osatua zela uste genuen, baina oker genbiltzan horretan: zazpi izar dira, Hartz Handia bezala. Hortik dator “ken bi”. Ilse Wagnerren etxean badute ping-pong jolaserako tresna bat, eta Wagnertarren jangelako mahai handia beti libre izaten da guretzat. Bost ping-pong jokalariei izozkia, udan batez ere, asko gustatzen zaigunez, eta ping-pongean asko berotzen garenez, gure jokaldiak amaitzeko beti izaten da bisitaren bat inguruetan juduontzat zabalik dauden izozki-dendetakoren batera, Oasi-ra edo Delphi-ra, adibidez. Diru-zorroa eraman beharrik ez dugu izaten; Oasia hain egoten da, izan ere, jendez beteta non beti izaten baita tartean ezagutzen dugun jaun bihotz onekoren bat edo miresleren bat astebetean ere jan ezingo genukeen adina izozki eskaintzeko prest.

Harrituta egongo zara ziur aski nire adinean miresleak aipatzen dizkizudalako. Tamalez (edo batzuetan ez horren tamalez), gure eskolan ezin itzurizko gaitza dirudi horrek. Mutikoren batetik etxera bizikletaz lagundu ahal diezadakeen galdetzen didan orduko, eta hizketan hasten garen orduko, batez ere, egon ninteko ziur, hamarretik bederatzi, erabat garretan jarriko zaidala mutil hori, eta ez didala begirik gainera kenduko. Handik denbora pixka batera maitasunaren bero hori hoztuz joaten zaie poliki-poliki, hain begirada suharrei jaramon gutxi eginik pedalei gogotik eraginez jarraitu ohi dudalako gehienbat. Neurritz harago igarotzen badira, bizikleta astintzen dut, liburu-zorroa erortzen zait, eta mutila beharturik sentitzen da gelditu eta jasotzera, eta, ematen didanerako, aldatua dut gaia. Gutxien oldartzen direnak dira horiek; badira musuak bidaltzen dizkizutenak eta besotik heltzen saiatzen zaizkizunak; nirekin jai dute, ordea; bertan gelditu eta garbi esaten diet urruti nahi ditudala, edo mindu itxura egin eta ulertzeko moduan esaten diet alde egiteko nire paretik etxera.

Horra bada. Jarri ditut gure adiskidetasunaren oinarriak. Bihar arte.

*Zure betiko Anne*